

«Gizonezkoak ez du nire liburua egiteko premiarik ikusten»



Gaur egungo emakumearen destino petrala joa da Ana Urkiza. Etxean ez ezik, lanean ari da handik kanpo. Hiru seme-alaba, batetik; komunikazio aholkularitzan, bestetik. Gehiago ere bada Urkizaren eguneroko lan agendan: irakasle da unibertsitatean, eta idazle. Destino petral horixe erakutsi du bere azken liburuan, zortzi idazleren bizi eta lanak aitzakia harturik. Emaizta, *Zortzi unibertso, zortzi idazle*. Zortzi sortaile agerian, ezkutuan bederatzigarrena: haien ispiluan erretratatu da Ana Urkiza bera.

MIEL A. ELUSTONDO

Argazkiak: Dani Blanco

• Ana Urkiza •
PERTSONAIA •

Zortzi unibertso, zortzi idazle, azaroan argitaratu zenuen liburua. Bertan, Aurelia Arkotxa, Yolanda Arrieta, Itxaro Borda, Mariasun Landa, Miren Agur Meabe, Laura Mintegi, Lourdes Oñederra eta Arantxa Urretabizkaia elkarrizketatu zenituen. Liburu bukaerako erantzuna dakarkit hona, emakumezko idazleen lekuaz Yolanda Arrietaren erantzuna: “Oraindik martxoaren 8rako deitzen digute”.

Bilbon izan ginen martxoaren 8an nire liburua-
ren aurkezpena egiten, FNACen. Lau idazle eta ni neu. Miren Agur Meabe, Yolanda Arrieta, Laura Mintegi eta Aurelia Arkotxa. Gonbita egin zidaten eta deialdia egin nuen liburuan parte hartu duten idazleen artean. Batzuek bestelako konpromisoak zituzten eta ahal izan zutenak, edo nahi izan zutenak, joan ziren hara.

Ona al da martxoaren 8a aitzakia jasotzea deia?

Nire ustez, egun horretan zerbait egin behar dela ez da dudarik. Baina egun horretarako deitzea, liburu hori aurkezteko, ez zait iruditzen egokia denik. Liburua, hain zuzen ere, kontrakoa esatera baitator.

Baina zerbait egin behar da, diozunez.

Alde handia dago adin bateko eta besteko idazleen iritzien artean. Nagusienek, adibidez, ez dute dudarik egiten. Haiei oso ondo iruditu zitzaaien aurkezpena egitea. Martxoaren 8an zerbait egiteko ohitura dute, oso aktibo eta oso konprometituta bizi dira. Nik, hain justu, kontrako ustea nuen. Liburua martxoaren 8an aurkezteak ez zuela zentzurik. Beste batzuek bestela uste dute, ahotsa emanez gero hartu egin behar dela, eta halaxe joan ginen, baina ez ni zeharo konbentzituta nengolako.

Aldean izan dut ARGIAk iaz argitaraturiko *Larrun*, XXI. mendeko feminismoari eskainia. Bego Muruaga itzultzaileak bertan esana daukat azpimarraturik: “Martxoaren 8 guztietan komunikabideetatik deitzen digute eta orain hogeita hamar urte egiten zizkiguten galderak egiten dizkigute”.

Horrela da. Uste dut egoera ez dela askorik aldatu. Urtean behin ematen digute ahotsa emakumeoi. Urtean behin, egun bakarra dugu! Galde-

Julen Urkiza

“Osaba Julen da irakurketaren eta idazketaren sekretua zabaldu zidana. Beharbada nahi gabe. Vienen zegoela ezagutu nuen osaba. Gutunak idazten hasi nintzaion eta berak, gogoan dut, ikaragarritzko gutun luzeak bidaltzen zizkidan. Vienen ere izan nintzen eta garai hartan niri Pluton esan edo Viena esan gauza bera zen. Osaba Julenek Vienako idazleei buruz, musikariei buruz... hitz egiten zidan. Irakurketaren eta idazketaren bidez Ondarroatik irten nintzekeela deskubritu nuen. Horrekin batera, Ondarroa txikia zela sentitu izan dut beti. Hura ez zela mundua. Mundua kanpoan zegoela. Osaba Julenek ez ezik, horretan laguntza handia eman zidan Augustin Zubikaraik. Betidanik gonbidatu ninduen idaztera, eta Ondarroatik kanpora joatera”.

rak, berriz, beti berdintsuak. Uste dut galderak egiten direla, baina ez dela erantzuna jasotzen.

Zortzi unibertso, zortzi idazle liburua atariko irakurritan, galderak nire baitan irauten du: Hasier Etxeberriaren liburua gabe, *Bost idazle Hasier Etxeberriarekin berbetan*, izango al zen hau?

Galdera zaila dut hori. Uste dut baietz, izango zela. Ez, seguru, formula horrekin, zeren eta formula Etxeberriarena baita. Baina liburua izango zela, bai. Aspaldi neukan liburu horren asmoa barruan. Atariko edo hitzaurrean ere esaten dut, egunen batean helduko zela. Etxeberriarena lehenengo deia izan nuen. Haren elkarrizketaliburua agertu eta, bertan, halako hutsunea nabaritu nuen. Gero, Anna Caballeren beste liburu horretan, *Lo mío es escribir* (Idaztea da nirea), emakumeak agertzen ziren, beste kontsiderazio batekin. Hurrena, berriz, Joseba Jaka bekak eman zireneko argazkia, egileak egunkarian, gizonezkoak denak... Uste dut orduantxe esan niola neure buruari liburua egin beharra zegoela. Halaxe sentitu nuen, beharra, eta niri tokatu zitzaidala egitea.

Neure golkoan, uste nuen Etxeberriaren liburua ongi pentsatua zegoela eta, beraz, han egindako okerra egiturazkoa zela. Aldiz, Joseba Jaka beken kasuan, emakumerik ez egotea koiunturala zela, beketan emakumezkoak batean gehiago, bestean gutxiago izaten direla... Euskadi Sarietan bezala, urteren batean lau sarituak dira emakumezko. Hurrena, denak gizonezko. Hutsuneak ere ez al dira ezberdin?

Uste dut zuk erabilitako kasuak salbuespen direla. Euskadi Sarietan lau sarituak emakumezkoak izatea, alegia, salbuespena da. Aldiz, Joseba Jakarenean, hutsunea estrukturala dela esango nuke. Liburuan ez dut daturik ematen, ez dut eta konturik ateratzen jardun. Areago abiatu naiz ezinegon batetik, sarritan gertatzen denetik. Horregatik egin dut galdera: “Zergatik gertatzen da beti edo gehienez?” Nik neronek ere hausnarketa egin beharra izan dut.

Zein eratako hausnarketa?

Nire irakurketak oso maskulinoak dira. Literatura irakurtzen dudanean oso ikuspegi maskulinoa darabilt, nire erreferente nagusiak halaxe izan direlako, maskulinoak. Emakumezkoak geroago deskubritu behar izan ditut. Pertsonaia femeninoak ere deskubritu egin behar izan ditut. Hargatik egiten nuen galdera liburuan: “Ez ote da gizonezkoek ez ezik, emakumezkoek ere berdin egiten dutela, guk ere irakurketa maskulinoa egiten dugula? Hortik ote dator sariak ematen ditugunean beti gizonezkoei ematea? Hortik ote dator gizonezkoari intelektualtasuna suposatzea, eta emakumezkoari, aldiz, halako hunkiberatasun bat, halako intimismo bat?”. Nik galderak egitera jotzen dut, erantzunik ez daukat eta. Eta

Nortasun agiria

Ana Urkiza Ibaibarriaga. (Ondarroa, 1969). Informazio Zientzietan lizentziatua. Komunikazio aholkulari ari da enpresa lanean. Bestalde, irakasle da Deustuko Unibertsitatearen Donostiako campusean. Hiru seme-alabaren ama da eta familiari emana bizi da. Artetan, idazle da. Prosa eta poesia, helduentzat eta haur eta gaztetxoentzat idatzi du. Zerrenda osatu du liburuak argitaratzen hasi zenetik, eta hainbat dira han-hemenka barreiatuak dituen artikulak eta kolaborazioak. Iazko abenduan kaleratu zuen *Zortzi unibertso, zortzi idazle* lanak dimentsio berria erantsi dio haren ekoizpenari, emakume idazleak bistaratzea helburu. Honetan eta hartan, literaturan eta bizian, Ana Urkizaren ekinak sorkuntza du, beti, ardatz.



Txarritxikinekuk

“Halaxe gara Ondarroan amaren aldeko aitaitaren aldetik, ‘Txarritxikinekuk’. Aitaita zenak, amaren aldetik, negozioak zituen. Horieta bat, urdaitegia. Beste alde batetik, bazen Baldomin izeneko bat, patata saltzailea, gure aitaitaren oso laguna, kamioia zeukana. Nonbait, erdi estraperloan ibiltzen ziren, Nafarroara joanez, eta handik txerriak ekarriz. Txerri basak ziren, beltzak, Ondarroa ingurukoak baino ilunagoak behintzat, baina goxoagoak. Gaueko ordu txikietan, txerriak Ondarroara ekarri, hiltegiaren hil eta urdaitegiaren saldu. Txerrikia goxoago zela ez zen dudarik, baina inork ez zekien nondik ekartzen zuten. Behin, kamioia husten ari zirela, hainbat txerrik ihes egin omen zuten, eta herrian ikusi! Orduantxe jakin zuten herrian txerri txiki goxo haien sekretua! Hortik ‘Txarritxikinekuk’.”



daturik ere ez, uste horiek errealtate direla egiaztatzeko.

Nik ez dut dudarik liburuko galderak egiterakoan zeure burua erretratatu duzunik, baina erretratu horixe bistaratu nahiko nuke. Ana Urkiza umetan. Gure etxean bai aitak eta bai amak egin dute lan, betidanik. Aitak, kooperatiba batean. Ama jostuna da. Etxean hasi zen josten erakusten, eta gero tailer txiki bat jarri zuen herrian. Aitak egun osoko lana zuen. Amak, berriz, arratsalde, iluntze aldera jarduten zuen. Hiru anai-arreba gara. Hirugarrena berandu etorri zen eta neba eta bion oroitzapena dut, beraz, txikitakoa. Arratsaldeak bakar xamar pasatzen genituen, amaren lana zela eta. Aita, egun osoko lanaz gainera, oso gizon konprometitua izan zen, kulturarekin konprometitua bereziki. Ikastolako guraso batzordean egon zen. Ikastolaren aldeko taberna jartzzen zenean, diruzain lanak egiten zituen. Musika eta dantza taldea zegoen herrian eta hango idazkari, diruzain eta beste izan zen. Hori daukat gogoan: aita oso konprometitua, baina etxetik kanpo. Bestalde, garai hartan batzar asko egiten zela daukat akorduan. Franco hil ondoko garaia zen, sei-zazpi urte nituenetik hamabi urte bete arte edo, gurasoak askotan irteten ziren bateko eta besteko batzarretara. Gurasoak herria egiten ari zirelako sentazioa bizi izan dut. Ni neu ere nahiko konprometituta ibili izan naiz, aitak parte hartzen zuen ekimen guztietako partaide: dantzari, musikari, idazle... Mugimendu dezentere, beraz, nire inguruan.

Herri bizia, eta berezia. Bi alderdiok bizitzea tokatu zait. Bi ikastola ziren herrian eta batera joaten banintzen ere, beste zenbait aktibitate bestelako leku batzuetan egiten nituen, neure gogoz eta hautuz. Herriaren kontzepzio oso politikoa bizi izan dut. Gogoratzen naiz, bestalde, gurasoek askotan eraman izan nindutela gauz antolatzen ziren saioetara: Intxixu antzerki taldearen aurkezpenera, zenbait musika jaialditarra... Alegia, artean erdi klandestinoak ziren ekitaldi askotara. Hori, adibidez, oso barruan geratu zait. Egin beharra, sortu beharra... Taldearen ideia, zeren eta egitekoak ezin zitezkeen bakarka egin: taldea behar zen. Taldearen babesa, taldeki-deekiko konpromisoa... Barruan gorderik dauzkat horiek.

Ana Urkiza, sortzailea.

Betidanik idazten ari naizela iruditzen zait. Galdera bat sentitu dut beti nire barruan, nondik etorria den ez badakit ere, baina jakin-mina iturri duena, nahi baduzu. Zerbait jakin nahi badut, aztertzen hasten naiz, ikasi artean. Ikasi dudala iruditzen zaidanean —nolabait esateko, ikasi-forma ematen saiatzen naiz, ni bezain ezjakin zirenek gauza nola den jakin dezaten. Hori da nire prozesua.

Ana Urkiza sortzaile, emakumezkoa.

Argi izan dut beti idaztea gustatzen zaidala. Ez nekien zenbateraino profesionalizatu nahi nuen, zenbateraino nahi nuen hori nire bizitzaren parte egin, baina beti jakin dut idatzi egin nahi nuela, nire izaeraren atal zela. Senarrari ere beti esan izan diot: “Idazte kontu hori nire parte bat da,

hori gabe ez naiz ni, ezin dut etsi”. Kontua da inguruak hori gabe ikusten zaituela. Bai, esaten dizute: “Libre zara idazteko!”. Baina, ondoren, ez duzu askatasun, eskubide edo dena delako hori praktikan jartzeko modurik. Orduan datoz loturak eta mugak. Gogoratzen naiz ezkondu nintzela idatzi nahi nuela esanez, ez nintzela ezkontzen ama izateko, argi eta garbi neukala hori.

Eta hiru seme-alaba dituzue.

Bai. Lau urte ezkondu egin eta ama izateko gogoa sortu zitzaidan. Haurdun nengoela, zera esan nion neure buruari: “Tarte batean utzi egingo diot idazteari, umea pixka bat hazi arte bada ere. Ama izateari emango diot nire denbora”. Esan bai, baina bete ez: ez zen posible izan. Alegia, ezin izan nion idazteari utzi. Lehenengo umea jaio, Maite, eta lo onekoa ez zela gertatu. Gauetz, hari bularra ematera jaiki, titia eman, haurra atzera lotaratu eta ni, atzera ohera beharrean, idazten hasten nintzen. Hori izan zen nire lehenengo amarrua.

Lehenengo amarrua. Ergo, gehiago ere izan dira...

Bigarren umearekin emakume nintzela konturatu nintzen. Bateko begizuloak eta besteko nekea. “Horrela beharko du! Horrela izango da!”, esaten nion neure buruari. Idaztea dela eta, berriz, senarrari esan nion: “Badakit ez diodala idazteari utziko, tarte bat behar dut!”. “Bai, bai, edukiko duzu!”, erantzuna. Baina ez da modurik. Orduantxe probatu nituen emakume izateak dakartzan mugak, zailtasunak eta ezinak. Alegia, gizonetzko izanda edukiko ez nituenak. Hortik atera nuen poema liburua: *Bazterreko abotsa*.

Ana Urkiza, obra. 2000. urtean argitaratu zenuen lehenbiziko liburua. Harrezkerro ez da eten zure obra. Noiz helduentzat, noiz haurrentzat idatzi duzu; noiz poesia, noiz prosa...

Gauari kentzen dizkiot orduak. Etxeari eta familiari, ez. Lo gutxi egin ez bizi naiz. Idazteari dagokionez, eskuartearen zer edo zer dudanean, burua martxan dago, etengabe. Ez nago denbora osoan ordenagailuaren aurrean. Aldiz, burua pentsatzen ari da, egiturari buruz edo beste xehetasun askori buruz. Asmo bat

Ahorronomina | EUSKADIKO KUTXA



LEHENENGO URTEA

NOMINA HELBIDERATUTA
DAUKATEN BEZEROENTZAT SOILUK

nominamulti
zure hileko aurrezkiak arduraz
zaintzen dituen aurrezki-kontua

Gutxienezko diru sarrera: 30 € • Gehienezkoa: 300€

Eskaintza lehenengo 20.000 kontuentzat izango da • Kuota hileroko ordainduko da Ahorronomina kontuan helbideratuta eta bezeroak edonoiz aldatu ahal izango du • Kontua baliogabetzeagatik ez da zigorrik edo komisiorik ezarriko • Interesak urtero likidatuko dira • Sartu gabeko kuotek ez dute komisiorik edo zigorrik eragingo • Bezero bakoitzeko kontu bat izango da gehienez • Ez dira onartzen ordainagirien helbideratzeak

CAJA LABORAL
EUSKADIKO KUTXA

Unibertsoa, andrez eta gizonez

“Uste dut nire liburuak ez zuela egon behar, baina baldin badago, premia zegoelako dago. Nik nahiago nukeen zortzi idazleren unibertsoa aztertu eta horietan batzuk andrazkoak eta beste batzuk gizonezkoak izatea, proportzioa zeinahi dela ere. Liburu hori egin nahiko nukeen nik, neure gustuaren arabera elkarrizketak egitea. Baina hau egiteko premia zegoen, eta halaxe egin dut”.

abantean dagoenean, egun guztian abantea dago makineria. Gauean, ordenagailuaren aurrean jarri eta tarte horiei errentagarritasuna ateratzen saiatzen naiz.

Ana Urkizaren irudi publikoa.

Jakin nahiko nuke zein den irudi publiko hori! Kar, kar, kar...

Horretaz gogoeta egitera behartu dituzu zure liburuko zortzi idazleak. Atarikoan aurreratzen duzunez, asko dira lanen gaineko isiltasunak eragindako minak... Emakumea ikusezina ei da.

Irudiaz ohar bat lehenengo. Oraintxe ezintasuna daukat irudi publikoa eduki ahal izateko beharko nituzkeen plazak egiteko. Liburu honen kariaz, adibidez, dei dezente jaso dut, baina ezin izan dut beti baiezkota eman. Aurtengo, esaterako, astean irteera bat baino gehiago ez egitea agindu diot neure buruari. Badago deia, eta gehiago ere eduki nezake, baina ezin diot erantzun. Beraz... Eta hori erreala da, benetakoa. Nire gizona oso berandu etortzen da lanetik etxera. Berak ezin du etxeko martxa eramane, eta neuk eramane behar dut. Hortaz, idatzi nahi izatekotan, edo nire lanak zabaltzen ibili nahi izatekotan, beste zerbait kendu behar diot denbora. Hori erreala da.

Esan nahi duzu, gizonezko bazina ez zenukeela zure lana zabaltzen jarduteko eragozpenik izango.

Ereduaren arabera gizona banintz, ez nuke zailtasunik izango. Nire lanbideari emango nioke denbora guztia, lehenengo lanbideari, edo bigarrenari, baina lanbideari.

Hortaz, gizonezkoek lanbideari ematen diote lehentasuna?

Bai, orain artekoak bai. Salbuespenak salbuespen. Emakumeetan ere badira horrela jokatzeko dutenak: “Nik, nire lanbideari!”. Horiek uko egin diote beste zenbait gauzari. Nik, hala ere, badakit momentu honetan familian egon behar dudala. Hori badakit. Are gehiago, hori egin nahi dut. Baina, bestearen erdia ere balego, nik nire lanbideari gehiago eman ahal izango nioke. Baina gaur-gaurkoz familia da nire hautua, hor ezinbestekoa naiz. Horrekin batera datoz idazteko gorabeherak.

Ondarroako euskaraz

“Oso txikitandik ibili naiz hitzaldiak eskaintzen, berri ematen eta abar. Eta behin ere ez dut nire burua gai ikusi komunikatu nahi nuen ondarrutarrez nik nahi bezala komunikatzeko. Ez dut argi eduki ondo komunikatzera helduko nintzenik. Ondorioz, txikitandik aukeratu nuen euskara estandarra. ‘Hau baldin bada euskaldun guztion euskara, horixe ikasiko dut’. Niretzat, euskara batua bigarren hizkuntza da. Hura ikasteko ahalegina egin nuen eta gaur egun erosoago sentitzen naiz hizkuntza horretan, denontzako delako, eta Ondarroako hizkerak galduak zituen hainbat baliabide estandarrek badiudelako. Hautua egin nuen, oso txikitandik. Baina Ondarrun ondarrutarrez eitten dot. Beharbada bizkaieraz alfabetatu banintz, ezberdina izango zen, baina ez nintzen alfabetatu eta batuen hautua egin nuen”.



Euskal literaturan daukazu lekuaz denaz bezainbatean, non da Ana Urkiza gure literaturaren plazan? Zer diozu kanonaz?

Nire liburuei dagozkien iruzkinak bai, izan dira. Jarraipena egin zaio nire lanari. Nik uste iruzkin zuzenak izan direla, onerakoak zein txarrerakoak. Kanona dela eta, bi irakurketa egin behar dira: bata obraren jarraipena egitea da, eta bestea aldiz, obrak kontuan hartzea bigarren irakurketa egiten denean. Lehenengo irakurketa bai, egin zait. Ez dakit, ordea, bigarren irakurketa egin behar denerako nire obra aintzat hartua izango den ala ez, kalitateagatik, edo beste zenbait ekarpenengatik.

Kalitatea. Gai hori ez zegoen nire agendan.

Lan literarioaren kalitatea dago alde batetik, eta bestetik, idazleak sortzaile eta pertsona bezala kulturari egin diezaiokeen ekarpena. Eta ez dakit bi parametro horiek kontuan hartzen diren.

Zergatik hitz egiten dugu emakumezkoekin emakumeen eta gizonen arteko ezberdintasun eta endredoez eta, aldiz, beti “munduaz” besterik ez gara ari gizonezkoekin?

Gizonak ez duelako egoera ezbaian jartzen. Emakumeak bai. Emakumea jabetzen da egoeraz, aldarri egiten du. Gizonak ez du zalantzan jartzen. Nik egin dudana liburuak egin zezakeen gizonezko batek, baina ez du egiten, ez du eta premia ikusten. ■